tolosaldeko ataria

Gutun soziala martxan

10-15

2013-12-13 • 42 zenb.

galtzaundi · TOLOSALDEKO hitza · Txolarre Irratia

Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako denden gabon kanpainak, prest 4
Belauntza, proiektuz beteta 6 • **Gazteluko historia adinekoen eskutik** 7
J.Saizarren begirada egunik beltzenei 16-18 • **Galtzakomik** 22-27

6 hilabetetarako ukipen lenteen pack-a
39
hilabete honetan
bakarrik
Berritu itzazu zure ukipen lenteak eta aurreztu %55-a
500 mL-ko 2 likido kutxa
portalenteak
eguneroko lenteak opari
San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA
multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

aldama_tapia
aholkularitza
Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
ETA GUK ZURI ERE OPARI
SU TA GAR TALDEAREN
'BIZIRIK GAUDE'
DISKO BERRIA
gaztezulo
Tel.: 943 457 250
BEHIN OPARITU
11 ALDIZ IASO
URTE OSOAN GOZATZEKOA!
11 ALDIZKARI IASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
20€ URTEAN


ZORIONAK !!
EGUBERRIETAKO ESKAINTZAK
Haurrentzako argazki saioak
Tolosako Txokoak eta
Bestelako dekorazio argazkiak
Zatoz eta ikusi
OSKIA KARRERA
ARGAZKIGINTZA ZERKAUSIA 6 TOLOSA
Tolosako Txokoak

Larraulen feminista

Estitxu Eizagirre Kerejeta
Argiako zuzendaria

Orain sei urte Hernanitik bizitzera etorri, eta lehen praktika positiboarekin topo egin nuen (topikoak zipriztintzen dizkidatenei maitasunez erantzuten diet adibide honekin): Katillu Txulo elkartean hasieratik izan direla bazkide emakumeak, Hernaniko elkarte batean lehenengo giltza Maialen Lujanbiok eskuratu zuen bitartean (ez bereak entzun behar izan gabe gainera). Larraulgo bizimoduak praktika feminista lantzeko modua aldatu dit.

Hernanin egunerokoan gurutzatuko ez nituzkeen gizon-emakumeak koadrilako ditut orain. Lanorduak etxeari eskaintzen dizkiotenak batzuek, dozena bat urte zaharragoak besteak, umeak hazteko lan ordaindua utzi dutenak, etxetik kanpoko lanetan ardurak hartzen ari direnak... lagunarte anitz horretan egosten dira elkarrizketak, hor elikatzen ditu norberak bere ideiak, hor garatzen diferenteek ere bat egingo duten argumentazioa. Hiri handietan bakoitza bere gisakoen taldeetan bizi bada, herri txikietan lehenik da norbera (norberaren pentsamendu, balio, bizi estilo...) eta hortik aurrera guztiz desberdinak diren besteekin dauzkan harremanak. Erabat *bariopintoak*. Talde kontzientziak garatzea askoz konplikatuagoa da bertan, Larraulgo feministen talderik ez dugu sortuko. Baina norbanako feminista hori egunerokoan herritarren gehiengoarekin dago harremanetan. Elkarreraginean. Pertsonarik «karkena» den horrekin moldatzea tokatuko zaio, karka horrek «feminista ero» horrekin adostasunera iristea beharrezko duen moduan. Norberak izate hutsarekin, bere presentziarekin, ematen dio jendarteari bere bultzadatxoa. Edozein ekintza txiki, semea arrosaz janztea, parke berera doazen zure gisako gurasoek bakarrik ikusiko dute Tolosan. Alkateak, apaizak, elkarteko lehendakariak, gazteak, artistak... Larraulen.

tolosaldeko ataria

galtzaundi TOLOSALDEKO hitza Txolarre

Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal
Telefonoa: 943 655695
Faxa: 943 650018
Webgunea: www.ataria.info
E.P: ataria@ataria.info
Irratia: FM 107.6
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.
Irratiko editorea: Jon Miranda.
Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:

galtzaundi
BERTAKO HEDABIDEAK berria
Txolarre

Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Saileurordetza

Tolosaldea

Tolosa, Amasa-Villabona eta Ibarran, zozketak egingo dituzte dendetan erosketak egiteagatik

Dendetako gabon kanpainak martxan

ERREDAKZIOA

Ibarrako merkatariak, kanpainaren aurkezpen ekitaldian. IÑIGO TERRADILLOS

Gabonak iristear dira eta horrekin batera, eskualdeko hainbat herrietako komertzioek gabonetako kanpainak jarri dituzte martxan. Tolosa, Ibarra eta Amasa-Villabonako merkatari elkarteek, zozketa eta eskaintza bereziak prestatu dituzte egun hauetarako.

Tolosan, esaterako, Tolosa&Co elkarteak 100 euroko 60 txartel zozketatuko ditu herriko ia 300 saltokietan erosketaren bat egiten duten bezeroen artean. Zozketa urtarrilaren 8an egingo da eta egun berean jakingo dira irabazleen izenak.

Zozketaz gain, kaleak girotzeko bi ekimen antolatu dituzte: haurrentzako parkea eta kale animazioa. Haur parkea, goizez eta arratsaldez izango da zabalik, hilaren 26tik 29ra, Zerkausian. Gainera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara musikariak ibiliko dira kalez kale. Besteak beste, Anonymous taldea eta Tolosako gazteek osaturiko beste musika talderen bat ariko dela aurreratu du Juanjo Ruiz elkarteko lehendakariak.

Bestalde, urte berriarekin, batzorde aldaketa izango da Tolosa&Co elkartean. Bi urte eta gero, Juanjo Ruiz lehendakariak bere kargua utziko du eta junta aldatzeko prozesua abiatuko du elkarteak.

Ibarran ere zozketak

Ibarran, berriz, urtarrilaren 7ra bitarte bertako saltokietan erosten dutenek dendetan erabilitako dirua irabazteko aukera izango dute, 400 eurora arteko mugarekin. Txartel bat eskuratuko dute bezeroek, eta bertan, herriko saltokiak bost multzotan banaturik azaltzen dira, koloreekin bereizturik: harategiak; janaridendak, arraindegiak eta liburudendak; belardendak, okindegiak eta tabernak; optikak, jantziak, ileapaindegiak eta telefonia; etxea, aseguruak, garajea eta inprenta.

Bada, multzo bakoitzeko denda batean erosketa egitean, saltzaileak salmentaren zenbatekoa idatzi eta dendaren zigilua jarriko du. Merkatari multzo bakoitzeko dendaren batean erosketa egin beharko da zozketan parte hartzeko, eta horrez gain, txartelaren goikaldeko datuak bete beharko dira. Bost saltoki multzoetan egindako erosketen batuketa, esaterako 150 euro bada, erosle horrek 150 euro irabazi dezake zozketan. Aitzitik, 500 eurokoa bada erosketen batuketa, 400 euro izango da saria, hori baita gehienez irabazi daitekeen kopurua.

Behin txartela behar bezala beteta dagoenean, denda bakoitzean egokituko den kaxaren batean sartu beharko da. Merkatarien elkarteak urtarrilaren 7an jasoko ditu txartelak, eta egun horretan bertan burutuko du zozketa.

Horrez gain, gaztetxoentzako ekitaldi bat ere antolatu dute Eguberrietarako. Datorren astean izango da, abenduaren 20an, 18:00etan, Kidam magoaren Txintxin magikoa ikuskizuna, kultur etxean. Bestalde, Ibarrako Merkatarien elkarteak kaleak girotuko ditu aurtengo Gabonetan megafoniaren bidez, eta euren iragarkiak izango dira entzungai.

Neurriak hartzeko garaia

Bestalde, Villabonako Oria Merkatarien Elkarteak, Behar-Zana Pilota Elkartearen laguntzaz, 1.100 euro banatuko ditu bertako dendetan gastatzeko. Lau sari zozketatuko ditu, abenduaren 16, 17, 18 eta 19an. Lehen hiru egunetan, 200 euroko txekeen zozketak egingo dira, eta 19an, 500 eurokoak. Horrez gain, saridunei saski ederrak oparituko zaizkie. Urtarrilaren 9an, 275 euroko txekeen beste zozketa bat egingo dute.

Kale animazioa ere izango da. Gabonetako haur parkea antolatu dute abenduaren 23, 27, 28 eta urtarrilaren 3rako. Bi eta bederatzi urte bitarteko umeentzat egongo da bereziki prestatua parke hau. Urtarrilaren 4an, berriz, Imanol Ituiño magoak ikuskizunak eskainiko ditu dendetan eta, arratsaldean tailerrak, jokoak eta haur dantzaldia izango da Berdura plazan.

Kirikiño aisialdi taldeak jakiak bilduko ditu Abegi eta Caritasentzat

Larunbatean Tolosako supermerkatuetan ariko dira bilketan

M. IRAOLA TOLOSA

Hirukide ikastetxeko Kirikiño Aisialdi Taldeak ere gabonetako kanpaina solidarioa jarri du abian. Azken aste honetan Abegi, etxerik gabekoen laguntza zentroan, izan dira laguntzen eta bihar, elikagaiak eta osasun produktuak biltzen izango dira Tolosako supermerkatuetan elkarte berarentzat, baita Caritasentzat ere.

Guztira batxilergoko lehen mailako 24 gaztek parte hartu dute kanpaina honetan, bi begiraleren laguntzarekin. Beren esanetan, «horrelako kanpainarik gabe, Abegi bezalako zentroek oso zaila izango lukete bizirautea», izan ere, «urrutira joan gabe, Tolosan ere bada laguntza beharrean aurkitzen den jendea».

Pertsona horiei laguntzeko bihar goizeko 10:00etatik 13:00etara izango dira supermerkatuen sarreretan, baina kanpaina hilaren 20ra arte luzatuko dute. Data horretara arte, ikastetxean ere uzteko aukera izango da.

• ataria@ataria.info •

Asteburuan, elkartasun azokak Ibarra eta Berastegin

Gaurtik igandera izango da zabalik Berastegin, eta igandetik hilaren 22ra, berriz, Ibarran

M. IRAOLA IBARRA

Urtero lez, gabonetako merkatu solidarioa antolatu du Ibarratik Misio Taldeak, abenduaren 15etik 22ra bitarte. Ekuador, Honduras eta Indiako lurretako misioetarako diru laguntzak lortzea da merkatuaren xedea.

Aipatu bezala, azoka abenduaren 15etik 22ra izango da. Astegunetan, goizez 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:30era egongo da zabalik eta igandean, berriz, 10:00etatik 14:00etara, San Bartolome plazan dauden parrokiako lokaletan. Igandean, gainera, pintxo pote solidarioa izango da.

Merkatuan salgai jartzeko gauzak oparitu nahi dituzten herritar eta dendariek, gaur eta bihar egin ahal izango dute 17:00etatik 20:30era artean. Bestelako laguntza eman nahi dutenek, 650416949 (Marian) edo 678844539 (Juanma) telefono zenbakietara deituta egin dezakete. Eskupekoren bat eman nahi izanez gero, 2095 5043 97 1062974919 kontu korrontea bideratu dute.

Asteburuan, Berastegin

Bestalde, asteburu honetan, bigarren eskuko materialen elkartasun azoka egingo da Berastegin, Etiopiako Wukro herria laguntzeko. Soberan edo erabiltzen ez diren gauzei etekina atera eta erabilpen berri bat ematea da azokaren bigarren helburua. Arropa, jostailu, liburu eta altzariak jaso dira, eta hauei prezio sinboliko bat jarriko zaie.

Aparkaleku azpiko lokalean egingo da azoka eta gaur 16:30ean zabalduko ditu ateak, eta 19:00ak arte egongo da. Bihar eta igandean, berriz, 11:30ean zabalduko dute, eta 13:00etan itxiko dute bihar, eta orduerdi beranduago, etzi.

Ibarrako plazako parrokiaren lokalean egingo dute merkatu solidarioa. ATARIA

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

Belauntza

Etxebizitzak, haurtzaindegia, frontoia estaltzea, bideak konpontzea edota taberna egokitzea dira proiektuetako batzuk. I.T.

Garai «lasaiagoak» Belauntzan

Liskarrak nabarmentzen ziren aroa igaro dela dio alkateak; proiektu ugari ditu udalak mahai gainean

JON MIRANDA **BELAUNTZA**

Herri txikia da Belauntza, 300 biztanlera iristen ez dena, eta belauntzarren eguneroko bizitza hobetzeko udalak hainbat proiektu ditu mahai gainean. Udaleko egoera ekonomikoa «nahiko ona» den arren, proiektu horiek egin ahal izateko behar den dirua lortzearen menpe daude.

Liskar politikoak nabarmentzen ziren garai batean, baina, horiek alde batera utzi zirela, eta azken urteetan «lasai» bizi direla dio Mariano Lazkano alkateak. «Herritarrekin batera, azken urteetan giro polita izan dugu; guk zabaltzen dugun mezua da laguntzeko gaudela udalean, eta belauntzarron arazoak belauntzarron artean konpondu behar ditugula», adierazi du alkateak.

Biztanleriari dagokionez, aipagarria da azken 12-15 urteetan bost haur izatetik, 20 ingurura igaro direla. Hori ikusita, eta udalaren helburua «jendeak bizimodua herrian egitea» denez, eskolarik ez dagoenez, ludotekak-eta antolatu izan dituzte, herriko haurrak eta gazteak elkartu daitezen. Aurrera begira haurtzaindegiaren proiektuari heltzeko asmoa du udalak. «Duela bi urte egin genuen saiakera, baina ez zen lortu aurrera eramatea, beraz, ideia horri eutsiko diogu, eta eskolarekin jarraitzea litzateke asmoa».

Plan orokorrarekin ari dira une honetan lanean, eta datorren urtearen erdialderako bukatzea espero dute. «Behin hori zehaztuta, herrian etxebizitzak egiteko eskaerari erantzuna eman ahalko diogu». Herriaren erdigunean joango lirateke etxebizitza horiek, alkateak esan duenez. Egin berri dituzten lanen artean, argiteriarena aipatu behar da, aurrezpen energetikoan «aurrerapausoa» eman baitute, argiteria guztia aldatuta. Beste ekimen batzuk ere badituzte aurreikusita, pilotalekua estaltzea, herri bideak konpontzea eta herriko taberna egokitzea, esaterako. Baserritarrentzat herriko sail batean lokal bat irekitzeko proiektua ere mahai gainean du udalak. «Hori biltegi edo garaje moduan erabiliko genuke materiala edota traktoreak gordetzeko». Herrian bi famili bizi direla baserritik azaldu du Lazkanok, eta beste batzuk ganadua dutela. «Ingurunea txukun mantentzeko lana egiten dute baserritarrek eta ez dute ordainetan laguntza asko jasotzen», esan du.

Bada, proiektu horiek guztiak burutu ahal izateko finantziazio moduaren zain daude. Udaleko kontuak «saneatuta» daudela adierazi du Lazkanok, baina krisi garaiotan inbertsio berriak egiteko «gaitasun gutxi» dituztela. Proiektuak abiarazteko beste erakundeetara jo behar izaten dute laguntza bila. Alkatearen ustez, «herri handiagoetako egitasmoak lehenesten dira gehienetan eta herri txikiak ezinean geratzen dira».

Garai bateko pasadizoekin Gazteluko historia egiten

Adinekoekin solasaldiak ari dira egiten eta ondoren ikus-entzunekoa osatzeko asmoa dute

IÑIGO TERRADILLOS GAZTELU

Garai bateko pasadizoak kontatzen ari dira Gazteluko adinekoak. ATARIA

Ekimen berezia jarri dute abian Gaztelun, bertako adinekoekin. Solasaldiak ari dira burutzen beraiekin, eta horrela, adinekoek ekimenetan parte hartzeaz gain, gainerako herritarrek Gazteluko historia euren pasadizoetatik ezagutzeko aukera izango dute. Bospasei saioetan bildutakoa irudi zaharrekin nahastu eta ikus entzunezkoa osatuko dute herrian erakusteko, eta horrela borobilduko dute hasi berri duten ekimena.

Uli Mankomunitateko Ainitze Telletxeak kontatzen duen moduan, udaletxeak kezka zuen, hutsunea nabari zuelako herriko adinekoen parte hartzearekin: «Herrian adineko asko daude, baina, udalak antolatzen dituen ekimenetan-eta, ez dela lortzen eurengana iristea, gutxi animatzen direla herrira jaitsi eta ekimenetan parte hartzera ikusten zen». Bada, adinekoen parte hartze proiektuentzako bideratutako diru laguntza bat jaso zuen udalak, eta laguntza hori zer nolako proiektura bideratu pentsatzen jartzean, erabaki zuten ekimen berri horrekin hastea.

«Beste herrietan, memoria tailerrak edota gaixotasunen inguruan hitzaldiak antolatu ohi dituzte adinekoentzat, eta pentsatu nuen hori ez zela nahikoa izango herrira jaisteko ohiturarik ez duten herritar horientzako», adierazi du Telletxeak. Hala, adinekoek garai bateko pasadizoak kontatzea «oso gogoko» dutela ikusita, ideia hori eta Gazteluren historia osatzea uztartzea pentsatu zuen, eta horrela sortu zen garai bateko gogoeta eta kontu zaharrekin solasaldiak antolatzeko ekimena.

Garai bateko argazki batzuk bildu, eta Gazteluko etxe guztietara deialdia luzatu zuten, lehen solasaldian parte hartzera gonbidatuz herriko adinekoak. Adinekoekin lan egiten duten Lahar elkargoaren laguntza eta aholkularitza ere izan dute.

Lehen hitzorduan, zortzi adineko elkartu ziren Gazteluko eskolan Uli Mankomunitateko eta Lahar elkargoko ordezkariekin. «Gerraosteko egoeraz, astoekin nola egiten zuten kontrabandoa, Guardia Zibilak nola engainatzen zituzten beraiek alde batera eta bestera joateko, Maritxu andereñoarekin izandako istorioak, herriko errota prezintatu zietenean norbere artoarekin irina egin ahal izateko gauez ixilpean Aresora egiten zituzten bidaiak, herriko tabernan bizitutakoak... denetarik hitz egin genuen; oso saio polita izan zen, beraiek baitziren protagonista, eta ederki igaro zuten», azaldu du Uli Mankomunitateko ordezkariak. Halaber, parte hartzearekin ere «pozik» daude, Gaztelu bezalako herri txiki batentzat «kopuru polita baita».

Bi saio burutu dituzte, eta beste lau-bost solasaldi egiteko asmoa dute. Horietako batean garai bateko jolasen inguruan ariko dira. adinekoek jolas horiek azalduko dituzte, eta ondoren, herriko gaztetxoak gonbidatuko dituzte joko horietan jolastera.

Saioetan esandakoa grabatu egingo dute, eta grabaketekin eta adinekoek ematen dituzten argazki zaharrekin, ikus-entzunezkoa osatuko dute proiektuaren bukaeran. «Hori herritar guztiei erakustea da gure asmoa, eta horrela gazteluarrek herriko adinekoek garai batean bizi izan zutena ezagutu ahalko dute».

Kontserba ikastaroa egingo dute Artubin

BEDAIO. Kontserba ikastaroa egingo dute bihar Bedaion, Artubi Elkartean. Baratzeko produktuak kontserbatan nola sartu ikasiko dute bertaratzen direnek, 10:00etatik 13:00etara bitarte. Artubitik azaldu dutenez, 20 partaide inguruk eman dute ikastarorako izena.

Ana Perezen klown ikastaro trinkoa

TOLOSA. Ana Perezek klown ikastaro trinkoa eskainiko du Amarozko Auzo Etxean abenduaren 28an eta 29an. Tailerraren iraupena 12 ordukoa izango da. Larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandean 10:00etatik 14:00etara. Bertan parte hartzeko 75 euro ordaindu behar dira. Izena emateko edo informazio gehiagorako, *intujai@intujai.net* helbidera idatzi daiteke, edo 647 20 14 01 zenbakira deitu.

Haur zine zikloa, eta bonoen salmenta

TOLOSA. Asteburu honetan jarriko dute martxan haurrentzako zine zikloa, Leidorren. Larunbatean eta igandean *Turbo* pelikula ikusteko aukera egongo da, 17:00etan. Bonoen salmena egun eta ordu horietan egingo da, hau da, 17:00etatik 19:00etara. 8 euroko kostua duen bono batekin, bost film ikusteko aukera egongo da. Pertsona bakoitzeko gehienez bost bono erosteko aukera egongo da.

Gabonetako egitaraua etzi jarriko dute abian

ALEGIA. Gaztaina erreak prestatuko dituzte Alegiako plazan, etzi. 17:00etatik aurrera egongo dira bertan, eta Gabonetako egitarauaren barruko ekitaldia izango da.

Bidaniako San Bartolome elizan, organo kontzertua

Fernando Gonzalo ariko da organoa jotzen, eta Jose Javier Etxeberria baritonoa abesten, biharko kontzertuan

ASIER IMAZ BIDEGOIAN

Bidaniako Organoko taldeak kontzertua antolatu du bihar, San Bartolome elizan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bidegoiango Udalaren laguntzarekin antolatu dute emanaldia. Urria 4an inauguratu zuten organoa Bidanian, zahar berritze lanak amaitu ondoren. 1902. urteko organoa da San Bartolome elizakoa, eta berritu ondoren, kontzertu bakarra egin dute berarekin, hain justu, inaugurazio ekitaldiko hura.

Bihar, 19:00etan, Fernando Gonzalo eta Jose Javier Etxeberria egongo dira Bidanian, kontzertua eskaintzen. Lehenak joko du organoa, eta bigarrenak abestu egingo du, baritonoan. Egitaraua Guilmant-en Martxarekin hasiko da, eta Gonzalo ariko da bakarlanean. Ondoren, Rossini, Langlais, Olaizola, Bossi, Bovet, Böellmann edo Fernando Gonzalo beraren lanak eskainiko dituzte.

Jose Javier Etxeberriak obra batzutan ez du abestuko, organoarekin bakarrik joko baitituzte. Etxeberria, Donostian jaioa da, eta esperientzia handia duen baritonoa da. Fernando Gonzalo ere Donostian jaio zen, eta Espainia, Frantzia, Italia, Suitza, Polonia, Ipar Amerika edo Kolonbiako hainbat hiritan eskaini ditu organo kontzertuak.

Irudia Ibarra

Joakin Harategia, bosgarren

Euskal Herriko XVI. Txistor lehiaketa jokatu zen Ordizian, asteazkenean. Oiartzungo Embutidos Etxekoak izan zen irabazlea. Bosgarren postuan sailkatu zen eskualdeko lehen ordezkaria, Ibarrako Joakin Harategia. Guztira 44 ekoizlek hartu zuten parte lehian. **ATARIA**

Kirol taula

AMASA-VILLABONA

PILOTA
Abenduak 13, gaur
20:30. Bearzana pilotalekuan, Gipuzkoako Txapelketako partida, eskuz binaka eta nagusien mailakoa: Behar Zana 2 eta Urnietaren artean.
Abenduak 14, bihar
17:00. Bearzana pilotalekuan II. Antton Pebeten Oroimenezkoa. Bigarren jardunaldia; Kadeteetan, Matxain-Aizpuru eta Irazustabarrena-Azpitarte. Jubeniletan, Labaka-Erasun, Alcansena-Olaizolaren aurka, eta nagusietan, Urbieta-Urruzola, Arrieta-Azpitarteren aurka.

HALTEROFILIA
Abenduak 15, etzi
11:00. Olaederra kiroldegian Eguberrietako Trofea jokatuko da, Gipuzkoako eta Bizkaiko pultsulariekin.

ZIZURKIL

PILOTA
Abenduak 13, gaur
19:00. Intxaur pilotalekuan eskuz binakako bi partida jokatuko dira, infantiletan. Ziotzako bikoteek Aurrera Saiezekoen aurka jokatuko dute.
Abenduak 14, bihar
13:00. Intxaur pilotalekuan gomazko paletan jubenilak ariko dira. Ziotzakoek bi partida jokatuko dituzte.

IRURA

PILOTA
Abenduak 13, gaur
20:15. Ametsa trinketean, eskuz banaka nagusien partida.
Abenduak 14, bihar
09:15. Ametsa trinketean, eskuz banaka, lau partida jokatuko dira jubeniletan.
14:00. Ametsa trinketean, eskuz banaka, sei partida jokatuko dira.
Abenduak 15, etzi
11:30. Ametsa trinketean, eskuz banakako hiru partida.

BIDEGOIAN

PILOTA
Abenduak 14, bihar
16:00. Aurrera Saiazeko pilotariek hiru partida jokatuko dituzte, alebinetan eta infantiletan, eskuz banaka.

TOLOSA

PILOTA
Abenduak 13, gaur
19:30. Beotibarren, bigarren mailako Lau t'erdiko Txapelketaren finala: Olazabal-Lemuno.
Abenduak 14, bihar
10:30. Beotibarren, zesta puntako partida, nagusien mailan.
16:30. Beotibarren, eskuz banaka, alebinen mailako hiru partida.

FUTBOLA
Abenduak 7, bihar
10:00. Tolosa CF-Beasain, infantil txikiak.
11:45. Tolosa CF-Lazkao infantilen ohorezko maila.

FUTBOLA
Abenduak 14, bihar
15:30. Usabalen, Tolosa-Berri Otxoa, Euskal Ligako partida.
16:30. Berazubin, Tolosa CF-Anaitasunaren arteko partida, Ohorezko Erregional mailan.

SASKIBALOIA
Usabalen jokatuko dira bihar sei partida, 10:30etik aurrera.

ARETO FUTBOLA
Gaur eta bihar, hainbat partida jokatuko dira Usabalen, Uzturpen eta Eskolapioetan.

Agirrezabala Ezkurdia, Ternua taldeko fitxaketa berria

Denboraldi bikaina egin du ibartarrak, eta horren ondorioz, talde berrian ariko da hurrengo urtetik aurrera

ERREDAKZIOA

Ternuak Leire Agirrezabala Ezkurdia mendi lasterkari ibartarra fitxatu du. Berarekin batera beste bi euskal korrikalari ere fitxatu ditu taldeak: Aritz Egea eta Jokin Lizeaga. Hiruak datorren urtean Ternua´s Friends taldean ariko dira. Agirrezabala Ezkurdiak urte bikaina egin du aurten, bere lehenengo urtea mendi lasterketetan. Leitzan jokatutako EH Mendi Erronka irabazi zuen eta segidan eukal selekzioan sartu zen, eta selekzioaren barnean Lanzaroten (Espainako Kopa) eta Vilaller-en (Espainako Txapelketa) lehiatu zen. Zumaia Flysch Trail 2013 irabaztea lortu zuen uztailean, eta La Saga Sky Race irabazi eta gero Espainako Kopako bereganatu zuen. Gorbeia Suzien irabazita Euskadiko txapeldun, eta Goierri Garaia irabazi ostean Donostiako Maratoian itxi du denboraldia 2:53 eginez bosgarren postua lortuta.

Leire Agirrezabala, erdian. ATARIA

Ibon Artola, Maddi Sarasola, Egoitz Iturbe eta Oihana Lopetegi, ezkerretik eskuinera. IMANOL GARCIA LANDA

Eskubideak oinarrizko gutun bilakatu nahian

«Prozesu honek parte hartzerik gabe ez du zentzurik», ondorioz, herritarrei deialdia egin diete

ASIER IMAZ **TOLOSA**

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzeko batzarra egingo dute astelehenean, abenduaren 16an, Tolosan. Asteazkenean, abenduaren 18an, Anoetan. Tolosaldeko herritarrak, norbanakoak nahiz eragileen ordezkariak, bertara deitu dituzte. Tolosan, 18:30ean elkartuko dira kultur etxeko areto nagusian. Anoetan, ordu berean, udaletxeko batzar aretoan jarri dute hitzordua. Bi bileren gaia gutun edo karta soziala izango da. Ardatza, aldiz, parte hartzea.

Maddi Sarasola anoetarra da. Anoetan, herriko eragileen artean kezka bat zegoela dio: gai sozialak lantzeko gune baten falta. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren berri testuinguru horretan izan zuten. «Anoeta herri txikia izanik, ez dauka Tolosak izan dezakeen aniztasunik. Gutun sozialarekin lanean hasterakoan, motor funtzioa izango zuen eragile berri bat sortu baino, herritar moduan antolatzea erabaki

ZERTARAKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA?

Bada garaia alternatiba bat, aldaketa sozial eta politiko bat Euskal Herrian bultzatzeko.

• Bada garaia Euskal Herriko emakume eta gizonok bestelako proiektu ekonomiko eta sozial bat eraiki dezagun Euskal Herriarentzat, eskubide eta betebehar berdinez.

• Bada garaia euskal gizarteak gizarte eredu bidezko eta solidarioa eraiki dezan, bere borondatez, beste inongo inposizio edo injerentziarik gabe.

• Horregatik erabaki dugu eztabaida prozesu bat irekitzea, inplikazio sozial eta sindikalarekin, datozen hilabeteetan gizarte kartarako proposamen baten erredakziora iristeko, alegia, Euskal Herrian bizi garen pertsona guztion sentipena eta gehiengoaren interesa jasoko dituen proposamen bat erredaktatzeko.

Tolosaldeko Eskubide Sozialen Karta

genuen», dio Maddi Sarasolak. Ibon Artola ere anoetarra da. Kasu honetan, ordea, Euskal Herria Sozialistako kide bezala ari da gutun sozialaren eraketan lanean: «Hasiera-hasieratik ikusi genuen oso proposamen positiboa zela, eta horregatik, parte hartzea erabaki genuen».

«Jendarteko kide gehienok behin eta berriz salatu izan dugu gobernuek guri eragiten diguten gauzei buruz zer nolako erabakiak hartzen dituzten. Baina gainera, ziur gaude bestela joka daitekeela, eta jokatu behar dela. Horregatik, gaurko egoera errotik aldatzeko mugitzen hasi gara»

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sarrera

Oihana Lopetegi eta Egoitz Iturbe eskualdeko LAB eta ELA sindikatuetako ordezkariak dira. Gutun sozialaren ideia nondik datorren eurek ongi ezagutzen dute, eta ikuspegi kritiko batetik, prozesu baten jarraipena dela diote. «Eraldaketa sozialaren ideia ez da berria, esperientzia desberdinak egin ditugu euskal gehiengo sindikal bezala. Bere garaian, dekalogo bat egin genuen, oinarrizko eskubide batzuk aldarrikatuz», argitzen du Lopetegik. Sozializazio lan baten ondoren, ordea, gehiengo sindikala errealitate batez jabetu zen: «Jendeak ez zuela berez ulertzen; lanketa, jendartean ez zela txertatu, eta ondorioz, ez zen tresna eraginkor batean bihurtu». Prozesu sozialaren beharrak, aldiz, bere horretan jarraitzen zuen LABeko ordezkariaren ustez: «Gabezietatik abiatuz eta hausnarketa baten ondoren, gutun sozialaren gaia atera zen». Ezkerreko ikuspegia eta burujabetasuna kontuan hartuko zituen eraldaketa saiakerari, ate bat itxi, eta bestea zabaldu zitzaion. «Prozesu sozial bat egin behar zela adostu zen, baina ez zen esan zein terminotan. Egin beharra zegoela bakarrik adostu zen. Eta hori gauzatzeko, hasiera hasieratik, gizarte eragileen ordezkaritza zabal batekin eta norbanakoekin batera egin beharra zegoen». Egoitz Iturbek bat egiten du Oihana Lopetegiren hitzekin, eta zera gaineratzen du: «Modelo alternatibo hori zein izango den erabakiko da, baina une honetan, garrantzitsuena ez da hori, nola landu baizik». Kezka

> **Multinazionalek erabakitzen dute enpleguak nolakoa izan behar duen, edo enplegurik ez duen egon behar. Hemen herriak erabaki behar du nolako etorkizuna nahi duen»**
>
> **OIHANA LOPETEGI** • LAB-EKO ESKUALDEKO KIDEA

horren harira, ELAko ordezkariak hiru baldintza jarri zirela dio: «Aniztasuna, irekia izatea eta garrantzitsuena, alderdikoia ez izatea; hau da, alderdi politikoek parte hartzeko aukerarik ez izatea».

Behetik gora, ez goitik behera. Hori da martxan jarri nahi duten funtzionamendua: «Batzarrez batzar erabakiko da. Eta hortik ateratzen diren tresnak norberak erabakiko du nola erabili. Bakoitzaren ekarpena kontuan hartu behar dugu, eta horri, etekina atera. Adibidez, norbaitek agian antzerkiren bat egin nahiko du gutun soziala oinarri hartuta. Ba hori, ekarpen bat gehiago denez, ongietorria izango da». Maddi Sarasolak bi gauza bereizi behar direla dio, nahiz eta elkarren osagarri izan: «Batetik, prozesua bera dago, gutun sozialari gorputza emango diona; bertan erabakiko da karta sozialak zein eskubide eramango dituen berarekin. Bestetik, batzar nazionaletik igaro ondoren, karta horrekin zer egin behar den erabaki beharko da, benetan tresna erabilgarria izan dadin».

«Lehen urratsa engainuaren eta distortsioaren lainoan sartzea da, eta munduari buruzko egia ikastea, gero antolatu eta borrokan jarduteko. Hori sekula ez da ezinezkoa izan, ezta erraza ere. Orain ez da ezinezkoa, ezta erraza ere. Historian gutxitan izan da hau bezalako unerik, non hautuak giza-ondorio zeharo dramatikoak eragin baititzake»

Noam Chomsky

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta lehen urratsak ematen ari da Tolosaldean. Orain artekoa aztertzerakoan «zailtasun» hitza behin eta berriz errepikatzen da: «Kostatzen ari zaigu». Hala eta guztiz ere, aurrera jarraitzeko gogotsu daude, «indarberriturik» ekin baitiote erronkari. «Argi dugu prozesu honek zentzua eduki dezan, prozesu herrikoia izan behar duela». Sarasolarentzat argi dago bidea abian jarri dutena dela, izan ere, prozesu parte hartzaile batek ekar dezake aurreko saiakeran lortu ez zena: «Dekalogoaren inguruan egin zuten hausnarketan jendeak bere ez zuela sentitzen ondorioztatu zuten. Hori iraultzeko, oraingo prozesuaren helburu nagusienetakoa jendeak erabakitzea da; norberak ikus dezala gutun sozialean zerk egon behar duen, eta zerk ez».

Eskualdean gutun soziala izaten ari den oihartzunaz hitz egiterakoan, Gipuzkoa aipatzen dute euren artean, eta alderaketak egiten hasita, posible dela ikusteko, Bizkaia bezalako adibide indartsuak azpimarratzen dituzte. «Gure kasuan hasiera da, eta pazientzia handiarekin hartu behar dugu; hori oso ga-

> **Modelo alternatibo hori zein izango den erabakiko da, baina une honetan, garrantzitsuena ez da hori, gutun soziala nola landu baizik»**
>
> **EGOITZ ITURBE** • ELA-KO ESKUALDEKO ORDEZKARIA

rrantzitsua da. Hor dago erronka, eta eskualdeak bere hartu behar du. Horretarako oinarri sendoak finkatu behar dira, iritzi guztiak kontuan hartuz».

«Kalera, kalera, borrokalari kalera!...»

Euskal kantu herrikoia

Nazio mailako prozesua izaki, batzar orokorrek izaera hori dute. Egoitz Iturbek argitzen duen bezala, jadanik hiru egin dira, eta laugarrena, bihar izango da, hilaren 14an, Bilbon. Sarrikoko unibertsitatean herri eta eskualde desberdinetako euskal herritarrak elkartuko dira, 09:30ean, gutun sozialaren inguruan hitz egitera. Tolosa eta Anoetako batzarretan bezala, Bilbokoak ateak zabalik ditu joan nahi duen ororentzat. Bertan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sarrerako testuaz hitz egingo dute. Eredu sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzearen beharra aldarrikatzen da zirriborro honetan, eta besteak beste, «nola ekarri gaituzte hondamendi honetara?» bezalako galderei erantzuna ematen zaie. Tartean, hausnarketa desberdinak agertzen dira, pentsalari, idazle edo esaera herrikoien bidez.

Aipu horiek, eraldaketa sozioekonomikoaren beharra irudikatu nahi dute. Paul Valéry idazle frantsesari, adibidez, ondorengo ekarpena hartu diote: *Gure garaiko arazoa da, honez gero etorkizuna ez dela izan ohi zena*. Aipuen zein galderen egungo testuingurua, Oihana Lopetegik ekartzen du eskualdera, adibide zehatzekin: «Tolosaldean ikusi dugun bezala, herri honen etorkizuna elite ekonomiko baten esku dago. Ez dago gure esku. Multinazionalek erabakitzen dute enpleguak nolakoa izan behar duen, edo enplegurik ez duen egon behar. Horrekin amaitu beharraren sentsazioa kalean dago; hemen herriak erabaki behar du nolako etorkizuna nahi duen».

Zirriborroaren sarrera kokapen moduan hartzen baldin bada, mamia ondoren datorrena izango litzateke. Eta hain zuzen ere, txostenaren zati hori, hurrengo astetik aurrera hasiko dira eztabaidatzen eskualdean. Asteleheneko eta asteazkeneko bileretan gutun soziala osatu behar duten eskubideez eta tresnez hitz egingo dute. Maddi Sarasolaren esanetan, batzarra tailer moduan eramango dute aurrera, talde txikietan banaturik. Guztiek izango dute hitz egiteko aukera, hain justu, dinamizatzaileek hori bultzako dute galdera-erantzuna metodologiaren bidez. Tailer horietan hamahiru puntu aztertuko dituzte, eta gai bakoitzaren barruan, arlo horretako eskubideak eta tresnak zehaztuko dituzte.

> Karta sozialaren gaia hasiera-hasieratik ikusi genuen oso proposamen positiboa zela, eta horregatik, bertan parte hartzea erabaki genuen»

IBON ARTOLA • EUSKAL HERRIA SOZIALISTAKO KIDEA

Galdera: Finantza sistema publiko edo pribatua? Banka edo bestelako eredua? Nola bermatu diruaren kontrol publikoa?

Eskubide ekonomikoak

Galdera: Kapitalari alternatiba gisa aurkezten den eredu berriak euskara barnebiltzen ez badu, eredu aldaketa izango da? Non daude gako nagusiak?

Hizkuntza eskubideak

Galdera: Zein izan behar du administrazioaren zeregina rock-ean, Nafarroako jotan, Edurne Zuri filmean, bertsolaritzan, Gugenheimen...?

Eskubide kulturalak

Eskualdeko gutun sozialaren inguruko talde eragileak, eztabaida prozesutik herri harresi bat sortu nahi dute, «botere ekonomikoak gehiengo sozialaren kontra zuzentzen dituen eraso guztiei aurre egiteko». Gaurko eztabaida biharko tresna bilakatu nahi dute, «bai alternatiba berriaren inguruan indarrak biltzeko, bai herri honetako borroka ahalmena bateratzeko, benetan aldaketa sozial eta politikoa Euskal Herrian lortu arte».

tolosaldekokartasoziala@gmail.com

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren orain arteko zirriborroa jaso nahi duenak helbide honetara bideratu behar du bere eskaria. Horrez gain, ekarpenak, informazio gehiago edo mugimenduarekin harremanetan jarri nahi duenak eskura du helbide elektronikoa.

> **«Batetik prozesua dago, gutun sozialari gorputza emango diona, eta bestetik, karta horrekin zer egin behar den erabaki beharko da, benetan tresna erabilgarria izan dadin»**
>
> **MADDI SARASOLA** • ANOETARRA

Maddi Sarasola anoetarrak ongi laburbiltzen du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren inguruan sortu nahi duten mugimenduaren espiritua: «Jendeari ekonomiaren inguruan galdetzen diozunean, askok zer esanik ez dutela edo ez dutela gaiaz jakintzarik esaten dizute. Baina hizketan hastean, denek zer esana dutela agerian geratzen da». Iritzi guzti horiek elkartu eta oinarrizko eskubide bilakatu nahi dituzte, indarberriturik martxan jarri nahi duten dinamikarekin.

«Sistema neoliberalaren kudeatzaileek eta 'itxura zientifikoa' ematen dioten intelektualek duela lau hamarkada heriotza zigorra ezarri zieten ideologiei, eta XX. mendea amaitzear zelarik historiaren amaiera ebatzi zuten. (...) Helburua engainatzea eta nahastea da, hain zuzen historia geldiarazteko asmoz, historia jendartea eraldatzeko, mundua aldatzeko herriek daramaten borroka den aldetik bederen. Funtsean, trikimailu teoriko horiek krisian dagoen eta gainbehera doan sistema politiko-ekonomiko baten jarrera defentsiboa islatzen dute».

Ricardo Alarcón

Hitzorduak

Abenduak 14, LARUNBATA

09:30. Euskal Herriko batzarra Bilbon, Sarrikoko unibertsitatean.

ABENDUAK 16, ASTELEHENA

18:30. Tolosako kultur etxeko areto nagusian, Tolosaldeko batzarra.

ABENDUAK 18, ASTEAZKENA

18:30. Anoetako udaletxean batzarra.

Gutun sozialaren prozesuan parte hartu duten eskualdeko hainbat eragile: ELA, LAB, BAI Euskal Herriari, Autoeskola Antikapitalista, Ibarrako Gazte Asanblada, Ikasle Abertzaleak, Zizurkil Zero Zabor, M15 Tolosaldea, Stop Etxe Kaleratzeak, Foro Errepublikarra, Berdinbide, Tolosa Zero Zabor, Euskal Herria Sozialista, Bilgune Feminista, Esait, Amarotz Auzo Elkartea, Larramendiko Auzo Elkartea, TOPA, Jatorkin, Bonberenea, Ernai...

Tropa nazionalak Beotibar pilotalekuan

Historiako egunik beltzenetakoa

1936ko abuztuaren 11n sartu ziren Francoren aldekoak Tolosan

JOXEMI SAIZAR
IRAKASLEA

Orain bost urte aurkeztu genuen «1936ko Gerraren oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean» liburua Mikel Errazkin historialariak eta biok. Bertan jasotzen dira Tolosako eta Tolosaldeko historiako egunik beltzenetakoaren gertakizunak, estatu kolpea eman zuen Francisco Franco jeneralaren aldekoek Tolosa hartu zuten eguna. Ez bereziki egun horretan gertatu zenagatik, baizik eta horrek ekarri zituen ondorioengatik. Egun haietan ehunka lagunek eskualdetik alde egin behar izan zuten eta batzuk ez ziren sekula itzuli. Beste asko atxilotu egin zituzten eta horietako batzuk fusilatu. Askoren ondareak konfiskatu egin zituzten eta horietako batzuk sekula ez zizkieten bere jabeei itzuli.

Francoren estatu kolpea 1936ko uztailaren 18an izan zen, Afrikan, otsaileko hauteskundeetan Frente Popularrak lortutako garaipenari aurre egiteko. Larunbata zen eta Tolosan azoka eguna, baina egun hartan saltzaileak eta erosleak ez ziren bildu, generoa falta zelako eta giroa nahasia zelako. Handik hilabete eskasera hartu zuten frankistek Tolosa, abuztuaren 11n. Aurreko eta ondorengo egunetan Tolosaldeko beste herrietan sartu ziren nazionalak deiturikoak. Mugimendu eta zalaparta handiko egunak izan ziren.

Francoren aldeko tropak Tolosan sartzen, San Frantzisko pasealekuan

Hiru bidetatik erasoan

Hiru lekutatik iritsi ziren tropa nazionalak Tolosara: Lizartza, Berastegi eta Beasaindik. Lizartzan uztailaren 25ean sartu ziren tropak Bikondoa kapitainaren agindupean borrokaldi labur batez, 22an Nafarroako mugako mikelete postua tiroketa batez hartu ondoren. Gero Becerra komandanteak hartuko zuen taldearen agintea. Handik Leaburura jo zuten, errepublikarren erasoa jasoz. Beasaindik abiatuta,

Errepublikarren barrikada Zubi Berrian

Cayuelaren tropak Oria bailara jarraituz aurrera egin zuten. Abuztuaren 5ean Aldaba eta 7an Alegia hartu zituzten eta Tolosa erasotzeko tontor guztiak kontrolatu zituzten.

Leitzan Iruñetik abiatutako 90 errekete eta Tolosatik (60 bat, Pantaleon Zabala kapitaina zutela) eta Donostiatik ihes egindako beste erreketeak elkartu ziren uztailaren 20an Tercio San Miguel osatuz Latorre koronelaren agindupean. Urtoko mikelete postua 21ean ezin izan zuten hartu, baina bai 23an, 7 mikelete eta errekete bat hilez borrokan. Berastegin uztailaren 24an sartu ziren, erresistentziarik izan gabe. Hurrengo egunean Leaburun kokatu ziren. Belauntzan 25ean hartu tiroketa batzuen bidez. 29an artilleria elkartu zitzaien eta Leaburu bonbardatu zuten. Abuztuaren 9an Tutorren tropak Belabietan eta Izaskungo ermitan kokatu ziren.

Tolosa Gipuzkoaren giltza zela ikusita, laguntza eskatu zuten uztailaren 28an eta Loiolako kuarteletik artilleriako bi pieza iritsi ziren 30ean eta abuztuaren 3an zutabe bat iritsi zen Donostiatik Gomez Buillanen aginduetara. Defentsa Uzturre, Izaskun eta San Blasen antolatu zuten. Artileriako pieza horiek San Blaseko Muxika baserrian kokatu zituzten tiro eginez. Hala ere, ezer ezin izan zuten egin nazionalak gelditzeko. Abuztuaren 9an Antonio Maria Labaien alkate abertzaleak eta EAJko, Izquierda Republicanako eta Alderdi Sozialistako zinegotziek herria Komite Iraultzailearen esku utzi zuten, Urtizberea kapitaina buru zela. Herriko irteera bakarra Arramele zubitik zen, gauez, egunez nazionalen tiroketak izaten zirelako.

1936ko abuztuak 11, erreketeen ikuskatzea San Frantziskon

CDI Informatika
Osagaiak
Desarroiloak
Instalakuntzak
Tel.: 943 650 199
Faxa: 943 653 916
TOLOSA (Gipuzkoa)

Beti alai jatetxea
Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak
Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

Mahala
bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak
www.mahalanaturala.com || 943 67 07 24

KEY•LAN
SARRAILGINTZA
Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

TINDATEGIA
KAIZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

Soldadu nazionalak Oriako batailan

Herria inguratuta

Abuztuaren 10ean Tolosa inguratuta zeukaten altxatuek. San Blas eta Izaskundik atzera egin Errepublikaren aldekoek eta azken defentsa lerroa Zubi Berrian eta San Frantzisko kalean eraiki zen barrikaden bitartez. Baina 13 gizon bakarrik zeuden San Frantziskoko barrikadetan. Uzturren erreketeak zeuden Imaz kapitainaren agindupean. Papelera Española eta tren geltokia hartu zuten. Trenak ez ziren iristen. Gauean ebakuazioa egitea erabaki zuen Gipuzkoako Defentsa Juntak. Adinekoak, emakumeak eta haurrak eraman egin zituzten. Armarik, municiorik eta miliziarik ez zen gelditu. Urtizberea kapitainaren indarrak Villabonara joan ziren. Cayuelaren tropek okupatu zuten Tolosa abuztuaren 11n, goizeko 11etan, abiazioaren erasopean, eta 100 preso egin zituzten. Ibarra eta Tolosa arteko mugan, Latorreren tropetako dozena bat gizon hil zituzten errepublikarrek, tartean Jose Fernandez Checa komandantea. Fidel Azurza jarri zuten Udal Gestoraren lehendakaria eta honek zinegotziak izendatu zituen. Donostiara iritsi zirenean, Diputazioko lehendakari ezarri zuten Azurza.

Hurrengo egunean bi kamioi blindatu eta sei miliziano harrapatu zituzten. Abuztuaren 14an Beasaindik zetorren Cayuelaren zutabea eta Berastegitik zetorren Latorreren zutabea, 2.500 gizon guztira, Iruretagoiena koronelaren agindupean jarri zituzten bi helbururekin: Andoainera jarraitu eta Tolosa sendotu, Azpeitirako errepidea moztuz. 15ean Latorren zutabea Berastegitik eta Leitzarandik Andoain aldera joan zen eta Cayuelarena Zizurkil, Aduna eta Sorabila aldera.

Hauek dira gertaerak hutsak. Protagonisten testigantzak beste baterako utziko ditugu.

Eskualdeko enpresak epe ertain eta luzera lehiakorragoak izateko lanketa berezi bat egin beharra dago

Zaila da egun Tolosaldeak eta oro har Euskal Herri osoak bizi duen egoera. EEEak, itxiera espedienteak, kaleratzeak... eguneroko albiste dira komunikabideetan. Baina aurrera egin beharra dago eta zulotik ateratzeko tresnak eraiki. Enpresek nahiz eskualdeko eragileek epe ertain eta luzerako ikuspegia izan behar dute, ongi prestatu eta etorkizunean lehiakorragoak izateko.

Urtetik urtera merkatua aldatzen doa, eta eskualdeko enpresek aurrera egiteko ezinbestekoa da gaur egun diharduten Tolosaldeko eragile ekonomikoak merkatu globalizatuan gero eta lehiakorragoak izateko apustu sendoak egitea. Era berean, potentziala erakusten duten sektoreak sustatu behar dira, eta bide horretan dihardu lanean Tolosaldea Garatzenek.

Aipatu bezala, egoera zaila da, langabezia datuak nabarmen igo dira 2008tik hona. Tolosaldean, iragan hilean %14,2koa zen tasa, duela bost urte baino %93 handiagoa. Beraz, ia bikoiztu egin da kopurua. Urte txarrenak 2009 eta 2012a izan ziren, orduan eman baitziren igoera kopuru handienak. Baina, datu hauek ez dira Tolosaldean bakarrik eman, Gipuzkoako eskualde gehienetan baizik. Esaterako, Urola erdian %164 igo da langabezia; Urola Garaian %124; Goierrin %111n; Debagoienan %73 eta Donostialdean %78. Horregatik, egoera zaila da eta une honetan, lanik gabe geratu diren guzti horiei babesa eta laguntza eskaini behar zaie. Tolosaldea Garatzenen helburua da, langabetu hauek ahalik eta azkarren berriro ere lan merkatuan barneratzea, eta horretarako erraztasunak eskaintzea. Helburu hori lortzeko bidean, hainbat zerbitzu ditu eskura garapen agentziak: hala nola, formazioa, orientazio zerbitzua, aholkularitza eta lan eskaintzen kudeaketa. Nabarmendu gainera, uneoro etorkizunera begiratu behar dela, eta horregatik, egun formazio berriak diseinatzen ari dela, enpresen beharretara egokitzeko eta berauen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:
Urteko Ohiko Batzar Orokorrera dei egiten dizut, Euskal Herria plazako TOPICen burutuko dugunera. Batzar hau abenduaren 18an, asteazkena, izango da arratsaldeko 19:00etan hirugarren deialdian. (lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:
1.- Bi bazkide izendatzea, Lehendakariarekin eta Idazkariarekin batera Batzar Nagusi honetako akta onetsi eta sina dezaten.
2.- Aurreko batzarreko aktaren onarpen txostenaren irakurketa.
3.-Partaide berriak Artezkaritza Kontseiluan eta Gurasoen lan-batzordeak.
4.- Kilometroak 2013.
5.- Balantzea eta Aurrekontua
6.- Kuotak eta finantzazio iturriak
7.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
8.-Elkartasun ikastolak Europar Kooperatiba Elkartean sarzeko erabakia hartzea.
9.-Galdera eta eskeak.

Tolosan,
2013ko abenduaren 14an
Batzordeko Lehendakaria

agenda

HITZALDIA

Paisaia Alkizan: Naturaren materialak artean. Hizlaria: Koldobika Jauregi. Abenduak 13, ostirala. Alkiza, Fagus (19:30).

Gure esku dago proiektuaren aurkezpena. Gazta zati bat dokumentalaren emanaldia (18:30) eta ondoren *Gure esku dago* proiektuaren aurkezpena, Angel Oiarbiderekin. Abenduak 13, ostirala. Irura, Ikastola Txikia.

Kulturarteko Jardunaldiak. Munduko kantu inprobisatuak, Kataluniako egoera. Abenduak 13, ostirala. Villabona, Mintzola (19:00).

Innovabizzia jardunaldia. Abenduak 16, astelehena. Matti Hemmi (Inknowation sortzailea) - «Amets egitera ausartzen zara?» Jarri iezaiozu iraungitzedata zure ametsari eta atera zaitez zure erosotasun-eremutik. Josu Feijoo (Ingeniaria eta astronauta) - «...eta ametsak betetzen badira...» Etorkizuna ametsen edertasunean sinisten dutenentzako da. Izen-ematea eta kuotak: info@bizzia.net - 650 742 394. Tolosa, Topic (18:15).

Euskararen egoera eta etorkizuna Euskal Herrian eta Alegialdean. Abenduak 16, astelehena. Jon Sarasua eta Xabier Bengoetxea. Alegia (19:00).

KONTZERTUAK

Eguberri Umama. Abenduak 13, ostirala. Tolosa, Leidor (20:30).

Elkartasun kontzertua. Arimaz, Santa Cecilia abesbatza eta Escolania San Ignacio. Abenduak 13, ostirala. Tolosa, Santa Klara komentua (20:15).

Grises eta Malder. Abenduak 13, ostirala. Tolosa, Bonberenea (22:30).

80's. Abenduak 13, ostirala. Irura, Trinketea (23:00).

Kup Abesbatza. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Santa Klara eliza (20:00).

Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Musika Eskolako aretoa (19:00).

Organo kontzertua. Jose Javier Etxeberria (baritonoa) eta Fernando Gonzalo (organo jolea). Abenduak 14, larunbata. Bidania, San Bartolome eliza (19:00).

IKUSKIZUNAK

Afari Txoua. Irrimarrak (Dani Fano eta Asisko Urmeneta). Bertsoak (Xabier Silveira). Txisteak (Anartz Iturbe). Txartelak 22 euro: Sendi Ekintza taberna, Zubiaurre, Atari, Alai, Danon txokoa eta Galtzaundi Euskara Taldea. Abenduak 13, ostirala. Ibarra, Sendi Ekintza Elkartea (21:00).

Kamishibai. Zikloia. Umeentzako ikuskizuna. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Amarozko auzo etxea (17:30).

Txioka. Taun-Taun. Txotxongiloak. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Topic (18:30).

Ahora! irudi bilduma emanaldia. Urte guztiko lanaren jarraipena eta KMK13 eguneko irudiak. Sarrera + DVDa opari: 3 euro. 8 urtez azpikoak: euro 1. Salgai Laskorain idazkaritzan eta Orbela tabernan. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Leidor (12:00).

Zikloia. Umeentzat ikuskizuna. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Amarotz (17:30).

Urak dakarrena... glu-glu glu-glu. Abenduak 14, larunbata. Albiztur, udaletxeko erabilera anitzeko gela (18:30).

Itsasoaren emazteak. Abenduak 14, larunbata. Villabona, Olaederra kiroldegia (22:30).

Desentxufatuak. Perla aukeratuak. Ez dok hiru. Abenduak 15, igandea. Abaltziskeeta, Goibegi Etxea (19:00).

ERAKUSKETA

Esto es TVida. Erakusketa kolektiboa. GKo Produkzioa. Blami, Agustin Esteso, Imanol Aizpuru, Cosas Primo, Pablo Jara Zenteno eta Judas Arrieta. Tolosa, Aranburu Jauregia.

HAURRAK

Ipuin Txokoa. 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Abenduak 13, ostirala. Tolosa, Errota Haur Liburutegia (18:00).

ZIZURKILGO KIROL ASTEA

Abenduak 13, ostirala. Mendiaren handitasuna. Karlos Diez. Zizurkil, Atxulondo Kultur Etxea (19:30).
Abenduak 14, larunbata. Haurrentzat kirol eta jokoak Intxaur frontoian eta, ondoren, hamaiketakoa eta opari banaketa (10:00).
Abenduak 14, larunbata. Gau Krosa. Haurren gau krosa. 2001etaik aurrera jaiotakoak. (22:00). Zizurkilgo XVII. Gau Krosa (22:30).
Abenduak 15, igandea. Haurrentzat balanzkide eta chopper zirkuitoak eta giza futbolina, Otaño ikastetxeko frontoian (17:00-19:00). III. Zizurkilgo Pilota Txapelketako Finalak. Ziotza Pilota eskolak antolatuta, Intxaur Frontoian. Ondoren, 2013an lorpen bereziak izan dituzten kirolari zizurkildarrei diploma banaketa egingo da.

KIROLA

Bonberenea Skate Txapelketa. Musika, skate eta graffitia. Gauean Unai Muñoaren eskutik *Ez gara Palestinaz ari* bertso-antzerkia. Abenduak 14, larunbata. Tolosa, Bonberena (16:00).
Iraupen eski eta eski alpino ikastaroa Somporten. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta. Abenduak 14 eta 15.
Brinkola-Zerain. Mendi irteera. Abenduak 15, igandea. Alpino Uzturrek antolatuta.

ZINEA

Turbo. Haurrentzako filma. Abenduak 14 eta 15, larunbata eta igandea. Villabona, Gurea (17:00). Tolosa, Leidor (17:00).
Malavita. Abenduak 14, larunbata (22:00); abenduak 15, igandea (19:30) eta abenduak 16, astelehena (21:00). Villabona, Gurea.
Los juegos del hambre: en llamas. Abenduak 14, larunbata (19:30 eta 22:30) eta abenduak 15, igandea (22:30). Tolosa, Leidor.
Todas las mujeres. Abenduak 15, igandea (19:30 eta 22:00) eta abenduak 16, astelehena (20:30). Tolosa, Leidor.

ELKARTASUNA

Merkatu eta pintxo-pote solidarioa.
Abenduaren 22a bitartean. Ibarratik Misio Taldeak antolatuta. Elkartasun azoka. Bigarren eskuko materialen azoka. Produktuek prezio berezia izango dute, eskuratutakoa Etiopiako Wukro herrira bidaliko da. Abenduak 13, ostirala (16:30-19:00); abenduak 14, larunbata (11:30-13:00) eta abenduak 15, igandea (11.30-13:30).
Berastegi, Aparkaleku azpiko lokala.
Hirukideko Eguberri Kanpaina.
Batxilergoko ikasleak elikagai iraunkorrak bilduko dituzte Tolosako hipermerkatuetako sarreran.
Abenduak 14, larunbata (10:00-13:00)

ODOL ATERATZEA

Abenduak 16, astelehena. Gipuzkoako Odol Emaileak. Tolosa, Kultur Etxea (18:00).

IKASTAROA

Oinarrizko bihotz-biriken suspertze ikastaroa eta DEA ekipoen erabilerako ikastaroa. Ikasle kopurua mugatua. Prezioa: 80 euro. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 943 46 46 22. Abenduak 16 eta 17. Tolosa, DYAko ordezkaritza, Larramendi 7, behea.
Autodefentsa ikastaroa emakumeentzat.
Abenduak 14, larunbata. Anoeta. Kiroldegia (09:30-13:30 eta 15:00-19:00).

SANTA LUZIA EGUNA

Meza. Abenduak 13, ostirala.
Tolosa, Santa Luzia ermita (16:00).

ASTEASUKO GABONETARAKO KULTUR EKITALDIAK

Andoaingo Konboaren kontzertua. Abenduak 13, ostirala. Asteasu, Iturriondo taberna (20:00).

AZOKA

Bigarren eskuko jostailuen azoka.
Abenduak 14, larunbata. Villabona, Berdura plaza (10:00-13:00).

GAZTAINA ERREAK

Gaztaina erreak. Abenduak 15, igandea.
Alegia, herriko plaza (16:00).

Euskarazko komikigintzari bultzada

Seigarren urtez jarraian Galtzaundi Euskara Taldeak Ibarrako Udalarekin batera, Galtzakomik lehiaketa antolatu du. Aurten gainera, euskarazko umoreaz gozatzeko parada berreskuratu da afari-txouarekin.

Guztira euskarazko 100 komiki-lan baloratu behar izan ditu epaimahaiak: Koldobika Jauregi, Kike Amonarriz, Vanessa Alzate eta Ibai Luke (Box.A Arte Elkartea) eta Joseba Antxustegietxarte. Aurten gainera, mailarik gorenean, 18 urtetik gorako sailean aurreko urterekin alderatuta uztarik emankorrena jaso da, «kalitate nabarmenarekin».

Gaur, abenduak 13, ostirala, arratsaldeko 19:30ean, Ibarrako kultur etxean sari banaketa ospatuko da. Artistak taula gainera igo eta euren lanen ordaina jaso ondoren, lanak publiko zabalarentzat ikusgai geratuko dira abenduaren 20ra bitartean Ibarrako kultur etxean irekiko den erakusketan.

Umore gaua

Euskal komikien gozamenarekin jarraitu asmoz, Galtzakomikek bere jarraipena izango du Ibarrako Sendi Ekintza elkartean. Izan ere, gaueko 21:00etan hasita, Galtzaundirekin elkarlanean afari-txou delakoa antolatu du elkarte honek. Bertaratutakoek Dani Fano eta Asisko Urmeneta komikilarien, Xabier Silveira bertsolariaren eta Anartz Iturbe txiste kontalarien sormen lanez barrez lehertzeko aukera izango dute.

Txartelak eskuratzeko aukera Ibarrako Sendi Ekintza, Zubiarre, Atari eta Danon Txokoa tabernetan eta Tolosan Galtzaundin (Nafarroa etorbidea, 6 behea).

Saridunen zerrenda

18 URTETIK GORA

1. saria: Maitane Gartziandia. ‘Kuleroak zikindu ditut’ (600 euro).
2. saria: Iosu Mitxelena. ‘Hau ez nian espero’ (400 euro).
Aipamena: Javier Navarro. ‘Mirenen mundua’ (Marrazketarako materiala + 100 euroko opari txekea).

12-18 URTE BITARTEKOAK

1. saria: Markel Galbete. ‘Bazen behin’ (400 euro).
2. saria: Inhar Esnaola. ‘Gauza txarrek ere badute alde ona’ (200 euro).
Aipamena: Ander Iribarren. ‘Barrabaskeriak’ (Komiki bilduma).
Aipamena: Ane Antxustegietxarte. ‘Islada’ (Komiki bilduma).

12 URTETIK BEHERA

1. saria: Maider Romero. ‘Barazkiak surfean’ (Komiki bilduma eta marrazketarako materiala).
Aipamena: Xabier Elola. ‘Arrain ninjaren burruka’ (Komiki bilduma).
Aipamena: Itsaso Echarte. ‘Zer xurgatuko dugu gaur?’ (Komiki bilduma).
Aipamena: Maitane Ezquerro. ‘Amaia eta mamua’ (Komiki bilduma).
Aipamena: Aimar Alvarez. ‘Oihanean galduta’ (Komiki bilduma).

Maitane Gartziandia

«Neska bati hilekoa lehenengoz etortzea bada kontatzeko gai bat»

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ **TOLOSA**

VI. Galtzakomik lehiaketako irabazlea da Maitane Gartziandia Agirrezabala. 23 urteko hernaniarra, ilustrazio munduan hasiberria da.

Kuleroak zikindu ditut lanak 600 euro eskuratzeko bidea eman dio. Koldobika Jauregik, Kike Amonarrizek, Vanessa Alzatek eta Ibai Lukek (Box.A Arte Elkartea) eta Joseba Antxustegietxartek osatutako epaimahaiak ondorengo ezaugarriak azpimarratu ditu Maitane Gartziandiaren lanaz: «Istorio oso pertsonal eta ausarta kontatzen du. Zuri-beltzean arkatzez eginiko ilustrazio honek kalitate handiko marrazkiak erakusten ditu. Estetika oso polita eta desberdina azaltzen du».

Zorionak, lehen saria eskuratu berri duzu Galtzakomik lehiaketan. Albistea espero al zenuen?

Egia esan jada ez nuen espero, aste hasieran deitu didate eta banekien sari banaketa ostiralean zela. Sorpresa pozgarria hartu dut.

Hala ere, ez da Galtzakomik-en jasotzen duzun lehen saria. Iaz *Sekretu bat* lanarekin bigarrena eskuratu zenuen.

Iaz lehen aldiz aurkeztu eta orduan bai sorpresa hartu nuela bigarren sari horrekin. Orduko lanean izeba-iloba batek konpartitzen duten sekretuaren istorioa jaso nuen irudietan. Lehenengo pertsonaiak landu nituen eta ondoren istorioa garatzen joan nintzen.

Aurten, *Kuleroak zikindu ditut* komikiarekin lehen saria jaso duzu. Ideia nondik abiatu da?

Hasieran beste gai bat landu behar banuen ere, azken momentuan hilekoaren ideia etorri zitzaidan burura. Neska bati hilekoa lehenengoz etortzea bada kontatzeko gai bat; liburu, telesailetan ez dugu askotan ikusi. Interesgarria iruditu zitzaidan.

Alaba eta aitaren arteko harremanetik kontatzen duzu gainera...

Bi pertsonaientzat hilekoa gai ezezaguna eta berria da; alabarentzat lehen aldia delako eta aitarentzat deseroso sentiarazten duen gaia delako. Gai pertsonala da, bakoitzak era ezberdin batean bizi izan du hilekoa lehenengoz etortzearen eguna.

Zuri-beltzean lan egiten nuen lehen aldia izan da; gustatu zait emaitza. Ilustrazioak, nahiz sinpleak izan, zuri-beltzean ondo luzitzen dute.

Maitane Gartziandia pozik lehen saria jaso duela jakinda

Zein da komikiarekin duzun harremana? Ilustratzaile, diseinatzaile grafikoa eta argazkilaria ere bazara...

Orain diseinu grafikoan nabil, aurretik argazkigintza ikastaro batean ere aritu izan naiz; mundu honetan murgiltzen ari naiz, ikasten nago oraindik.

Komikia edo irudia sortzeko garaian zer nolako baliabideak erabiltzen dituzu?

Marrazteko garaian, detaileak eta posturak ondo irudikatu ahal izateko argazkiren bat behar izaten dut aurrean. Marrazkiak eskuz marrazten ditut eta ondoren eskaneatu eta testuak edota aldaketa txikiak *Photoshop* bidez sartzen ditut.

Zure lanari erreparatuz, zer espero duzu?

Momentuz nire estiloa lantzen ari naiz, esperimentatzen ari naiz. Gogo eta ilusio handiarekin nago. Ilustrazioa dut gogoko eta horretan zentratzea gustatuko litzaidake. Badakit ez dela mundu erraza baina bai polita ordea.

KULEROAK ZIKINDU DITUT!

MAITANE
GARTZIANDIA AGIRREZABALA

Abuztuaren 9a zen, igandea. Kayakean ibiltzera joan ginen aita eta biok. Ez ginen maiz joaten, baina urteak generamaizala ziruditen; oso ongi koordinatzen ginen.

-1-


Baina ez zen gosea, ezta kakagura ere, ezta botagura ere, ezta trabatutako haizea ere.
Berria zen sentsazio hura.
aita!
!
zer gertatzen da, izlki?
ekarriko diskizu irrisk?
zauria egin al duzu? Kayakean ibili zarenean?
al hori! - lasai, neska, erosiera joango naiz oraintxe!
odola daukat, aita...
ez aita... baldakiza, hor beheran
hilekoa aita!
...
-2-


egon hadi lasai Gorton!
gertatu beharrekoa baa...
ta...
...orain zer...
...osta harta behar diat! eeeee...
-3-


ta?
ondo?
bai, bai,
tasai
goizeko ussaso barea zakartu egin
zen orda batzuen barruan eta jada
ez ginen hain ondo koordinatzen
alta eta biok!
-4-

Gerori, gure intimitatearen urratzaile

Ainhoa Barandiaran
Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua

Sare sozialek gure bizitzetan duten presentzia ezinbestekoa bihurtzen ari da. Esaterako, hau irakurtzen ari zaretenetatik nork ez du kontu bat irekia Twitter, Facebook edo antzekoren batean? Ordea, inork ba al daki hauen funtsa zein den? Bai, informazioa zabaltzea, baina informazio hori noraino da zabalgarri? Non dago muga?

Gero eta maizago irakurri edota ikusten ditut Facebook edota Twitterren: gaur lehenik hau egin dut eta ondoren hau, pertsona honekin eta honekin; edo haur jaio berrien argazkiak; ezkondu berri den bikotearen ezkontzako ia album osoa...Garai batean giltza txikiz ixten ziren eguneroko haietako kontuak, erabat barnekoak, orain lau haizetara zabaltzeko ohitura bilakatu da. Eta noski, internet bidez komunikatzeak ondoren, lagun edo familia artean isilik egotera behartzen gaitu, esan beharrekoak sare sozialen bitartez esanda daudelako.

Gauza ederra da mahai inguruan lagun artean edo familian bildu eta kontu kontari aritzea norberaren istorio eta bizipenak kontatuz; maite dituzunekin eta benetan estimatzen dituzunekin, eta garrantzitsuena, estimatzen zaituztenekin.

Urtebetetzeekin ere gauza bera gertatzen da. Sare sozialik ez zen garaietan benetan zure egunaz oroitzen zirenek zoriontzen zintuzten; egun, ordea, kalean diosala justu-justu egiten dizuten horiek ere zoriondu egiten zaituzte, ordenagailuak esan diolako zure urtebetetzea dela, ez beste ezergatik.

Zalantzarik gabe, sare sozialak informazioa zabaltzeko tresna ezin hobeak dira, baina, ene ustez, informazioa eta barne-barneko kontuak bereiztea bezain oinarrizkoa dena atzean utzi dugu, teknologiak aurrea hartu digu, nonbait.

Biluztu oinak

Maria Lopez Altuna
Ikaslea

Mota askotarikoak dauzkat, kolore guztietakoak, udakoak zein euritakoak, kirola egitekoak eta mendikoak, apain-apain janztekoak, kolore biziko lokarriekin, eta baita larruzkoak ere... Zapata mordoxka bat topatu daiteke nire armairuan.

Eguneroko betebeharretan laguntzen naute: hemendik bertara presaka agudo joaten, irtetear den autobusa hartzeko lasterka egiten, zaparradapean goxo ibiltzen... Ezin esan dezaket mesede egiten ez didatenik.

Goizero ipintzen ditut, etxetik atera aurretik, ongi ikasia bainaiz ezin dudala kalera oinutsik atera. Ohartu naiz, esnatzean dudan aldartearen araberakoak direla janzten ditudan zapatak. Honen adibide, gaur aukeratu ditudan takoidunak. Antza, ez naiz indartsu itzartu eta oinetakoak izan dira nire ahultasunaren lekuko. Noizbait onartuko dut ez naizela 170 zentimetroetara heltzen, nahiko nukeen moduan. Bitartean, txiki esnatzen naizen egunetan, orkatila okertu dut goizetik gauera bi bider ere, beharrezko bada, apur bat boteretsuago sentitzearen truke. Ilunabarrean, egun amaiezinaren ostean etxera heltzean eranzten ditut; itxurakeria beti ataritik kanpo geratzen da.

Kuriosoa iruditzen zait, ordea, oinak babesteko edo ezkutatzeko dugun ohitura, beharra akaso. Zertatik babesten gaituzte, baina? Lurraren malgutasunetik, beharbada? Ala, belarraren freskotasunetik? Lokatzaren jolasteko grinatik, agian? Edota, ur garbitik? Ez dut uste oinetakoak naturan barrena ibiltzeko asmatuak izan zirenik, pare bat zentimetro banatzen baikaituzte lurretik, harekin dugun lotura galduaz. Guk sortu dugun zementuzko gizarteaz babesten ez ote gaituzten susmoa daukat.

txEPELtzen hasi ote naiz, ba?

Aritz Larreta Bereziartua
Irakaslea

Beldur naiz txepeltzen ez ote naizen hasi! Edota, epeltzen! Izan ere, euskararen baitako diskurtsoa asko moderatzen ari naizela konturatu naiz. Beldurrak alde batera utzita, esplika ditzadan, fundamentuz, txepeltze edo epeltze horren nondik norakoak.

Orain dela gutxi arte, niri horrelakoak entzutea ez zen batere arraroa izango: «Euskal Herri osoan zehar denok hitz egin behar dugu euskaraz, denok bizi behar dugu euskaraz?». Bada, nire ametsa hori izanik ere, ez dut uste diskurtso hori, estrategikoki, oso egokia denik. Esan nahi dudana da, ez zaidala diskurtso hori batere eraginkorra iruditzen euskara ulertu ere egiten ez duten eta ulertu ere egin nahi ez duten horiengana gerturatzeko.

Euskararen antipodetan dauden horiekin irabaztera jokatu behar da. Alegia, guztiok euskara erabili behar dugula dioen diskurtsoarekin baldin bagoaz, ez dugu askorik lortuko; kontrako jarrera, seguruenera. Aldiz, euskaraz bizi nahi dugunok horretarako aukera izan behar genukeela aldarrikatuz bagoaz, zer esan behar digute? Ezetz? Ezezkoa emango luketen batzuk ezagutzen baditugu ere, gaur egun, «demokrazia» garaiotan, ez da politikoki oso zuzena euskaraz bizi nahi duenari, eskubide hori ukatzea. Zer egin behar digute? Frankismo garaian bezala, euskaraz bizitzea ukatu?

Demagun, aitortzen digutela euskaraz bizitzeko dugun eskubidea. Bada, behin kontsentsu hori lortuta, zera gaineratu beharko genuke: baldin eta eskubide hori gauzatuko bada, euskal herritar orok izan behar duela euskara ulertzeko gai, bestela, ez zaigulako euskaraz bizitzeko dugun eskubidea errespetatuko.

Beraz, eta EPEL bada ere, joka dezagun estrategikoki, joka dezagun irabaztera!!!

KOMIKIA

Nando

SANZ
arraindegia
Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85
Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

ARALAR
KIROLAK
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Urte askoan Haizea!

Larunbatean Haizeak 8 urte. Muxu handi bat maite zaitugun guztion partetik.

Urtebetetzeak
Ezkontzak
Jaioberriak
...

AGURRAK
943-65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20 • TOLOSA

Eguraldia



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Gaur aldaketa eguna izango dugu, goizean hainbestean eutsiko dio, zeruan geroz eta hodei gehiago ikusiko ditugu baina goiza nahiko polita izango da. Eguerditik aurrera haizeak mendebaldera, ipar-mendebaldera egingo du eta zerua estali egingo du. Arratsalde-iluntzerako euria iritsiko da. Euririk gehiena iluntze-gau aldera botako du. Tenperaturak graduren bat behera egingo du eta 12-13º-ren bueltan ibiliko da.

Larunbatean

Goizean, oraindik ere, euri pixka bat izango dugu; hala ere, ez du ezer handirik egingo. Eguerdirako atertzera egingo du. Arratsaldean pixkanaka ostarteak zabaltzen joango dira. Hala ere, ez da guztiz garbituko. Tenperaturak beste pixka bat behera egingo du; gehiengoa 11-12º-ren bueltan ibiliko da.

Igandean

Hego haizea, berriz ere, bueltan izango dugu. Egunaren lehen zatian hodei batzuk ikusiko baditugu ere, pixkanaka garbitzera egingo du eta egunaren bukaera oso polita geratuko zaigu. Tenperatura antzeko balioetan ibiliko da, gehiengoa 11-12º-ren bueltan.

Astelehenean

Hego haizeak indarra hartuko du, zerua oso garbi mantenduko da eta tenperaturak irabazi egingo du, 13-14º-ren bueltan kokatuz. Hego haizeak gurekin, gutxienez, beste bi-hiru egunetan jarraituko du.



Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena
13	14	15	16

URDAIKARIAK Altuna HARAKINAK
Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

TG GORRI

RAKU
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ZABALA DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

Publirreportajea

Benta-Aldea bi, eguneroko nahiz oparietarako produktuak

Unai Garmendiak inauguratutako lokalaren berri eman du.

Lokala inauguratu berri duzue baina ez zarete berriak ardogintza eta gastronomia mundu honetan...

Gure negozioa Bodegon Benta-Aldea da (Anoeta), bertan taberna eta jatetxeaz gain, upeltegia ere badugu. Bezeroei zuzeneko harrera ematen diegu: ardoa, kontserbak, likoreak... Horrez gain, eskualdeko taberna, jatetxe ea elkarteetan gure produktuak banatzen ditugu.

Nolako pausoa eman duzue lokal hau zabaltzean?

Tolosan zabaldu berri duguna denda-almazena da. Tolosarrei, bertako bizilagunei, kotxea hartu beharrik gabe eguneroko erosketak herrian bertan egiteko aukera eman nahi genien. Denda berezi honetan gure produktuak ikusgai jartzeko aukera izan dugu.

Zer da bezeroak hemen topatuko duena?

Egunero erabiltzeko produktuak zein bertakoak (sagardoak, txakolinak, ardoak, kontserbak...). Honetaz gain, produktu bereziak ere baditugu, oparietarako produktuak, lote-formatu edota estutxe berezietan aurkeztutakoak (ardo bereziak, kabak, xanpainak...).

Momentu aproposean zabaldu duzue, Gabonak ate-joka ditugu...

Eragina badu bai Gabonak gertu izateak. Salmentari baino ezagutarazteari eman nahi diogu garrantzia. Jendeak hemen gaudela jakin behar du.

Eguneroko produktuez gain oparietarako aukera zabala duzue...

Detaileak oparitzeko aukera berezia dugu; ardoa, iberikoak, whiskya, ginebra... Lote txikiak erosteko aukera dago. Bezeroaren nahi eta beharretara moldatzen gara. Gure denda jende orori zabalik dago.

Zuen betiko bezeroak gerturatu al dira denda berria ezagutzera?

Bai, badakite ireki dugula eta bat baino gehiago bisitan etorri zaigu. Eguneroko produktu horien erosketa egiteaz gain, produktu bereziak ere topatu dituzte gurean, supermerkatu handietan aurkitzen ez direnak (upeltegi txikietako ardoak, kontserba-familien produktuak...). Hau da gure nahi eta ilusioa.

Familia-enpresak eta produktu berezituak aipatu dituzula; dastaketak edota tailerrak antolatzeko asmorik duzue?

Urtarriletik aurrera, denboraldiko produktuaren arabera, dastaketak eta tailerrak antolatuko ditugu. Esaterako, sagardo denboraldian sagardozaleen tailerrak, etab. Positiboak dira tankerako ekimenak, bai guretzat eta baita bezeroarentzat ere.

Benta-Aldea bi **Helbidea.** Belate pasealekua 1, behea • Tolosa • **Tel.:** 943 506 638

GEUREA ITZULI

Bertako eta garaiko produktuen kontsumoa berreskuratzeko garaia da, modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak. Guztioi mesede egiten digun kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena. **Gure herriaren sustraiak.**

www.bertakoaetagaraikoa.net

Gipuzkoa BERRIA

Miriam Arrizabalaga
Doniene Berri baserria
Fruta eta barazki ekologikoak banatzen ditu Eibar eta Debako kontsumo taldeetan.